

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Mugikortasun arazoak dituen jenderik eta adineko jendea nagusia ez badaude, gure negozioa ez litzateke posiblea izango, zeren eta gure gurgil aulkia bakarrik haiei zuzenduta dago. Izan ere, gure produktua adinekoentzat edo mugitzeko zailtasunak dituztenentzat soilik diseinatu dugu, hala nola gaixotasun neurodegeneratiboentzat.

Alde batetik, gaur egun, gero eta adineko pertsona gehiago daude, jendeak gero eta seme-alaba gutxiago dituelako eta gero eta jende zahar gehiago dago Espainian.

65 urtetik gorako jendearekin espezializatuko gara bereiziki.

España, más 'senior' que nunca y suma 1,2 millones de mayores de 65 en diez años

En 2021, el país contaba con 9,3 millones de personas mayores de 65 años, mientras que en 2011 la población de esta franja de edad se situaba en los 8,1 millones, un 15,1% menos según se desprende de los últimos datos del INE.

Bestealde, ezin ditugu beste bezeroak alde batera in utzi, hala nola, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak. Hainbat pertsonak Gaixotasun neurodegeneratiboak dituzte eta gaixotasun hauek desgaitasunaren arrazoi nagusietako bat dira. Gurgil-aulki baten edo mugitzeko laguntzen mende egotea ez dago beti lotuta istripu baten ondorioz hartutako muineko lesio batekin; aitzitik, mugikortasunari eragiten dioten lesio neuronalek eragindako ezintasunak daude. EGEFen (Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioa) arabera, gaixotasun arraroak (GA) edo ez oso ohikoak «biztanlerian prebalentzia txikia dutenak dira. Arrarotzat hartzeko, gaixotasun espezifiko bakoitzak pertsona kopuru mugatu bati bakarrik eragin diezaike. Zehazki, 10.000 biztanletik 5i baino gutxiagori eragiten dienean. Hala ere, OMEren (Osasunaren Mundu Erakundea) arabera, munduko biztanleriaren % 7ari eragiten dioten 7.000 gaixotasun arraro inguru daude.» Espainian 3 milioi pertsona baino gehiagok dituzte gaixotasun ezohikoak.

En España hay 4,38 millones de personas con discapacidad. Así lo muestra una reciente encuesta del Instituto Nacional de Estadística (INE). La movilidad es el problema más frecuente entre esta población.

Gaixotasun neurodegeneratibo ugari daude baina ohikoenak hauek dira:

1. Gaixotasun neuromuskularrak: Gaixotasun honen ondorioz, pairatzen duen jendeak muskuluen indarra galtzen du eta kasu gehienak haurrenak dira. Gaixotasun hau genetikoa da.
2. Alzheimer-en gaixotasuna: Oroimenaren galera progresiboari eragiten dio, eta sindrome afaso-apraxy-agnosikoa agertzen da. Horren ondorioz, hizketaren gaitasunak galtzen dira, sekuentziarioa, mugimendu konplexuak egitea eta estimuluak ezagutzea.

3. Parkinsonen gaixotasuna: dopamina eragiten duten neuronak poliki-poliki hiltzen direnean, parkinsonaren gaixotasunaren sintoma bereizgarriak agertzen dira, hala nola dardarak, oreka eta koordinazio falta, ibileraren alterazioak eta mugimendu motelak.
4. Huntingtongo Korea: Mugimen-alterazioak bereizten dira gaixotasun honekin, hala nola koreak ("dantzaren" antzeko mugimendua) edo muskuluen nahi gabeko uzkurduragatiko mugimenduak.
5. Friedreich-en ataxia: sintomak 5 eta 15 urte bitartean hasten dira, eta, batez ere, mugimenduak koordinatzeko zailtasuna, giharretako ahulezia, hitz egiteko eta ibiltzeko zailtasunak dituzte.


Gure produktua talde batean banatzen da: Mugitzeko zailtasun duten pertsonak.

Biztanleria nagusiaren bilakaera

Espainiako biztanleria 65 urtetik gorako 1,2 milioi pertsonara igo da hamar urtean.

Garrantzi berezia du adineko pertsonen proportzioak eta eraginak biztanleria osoan. EInen 2011ko azaroko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren datuen arabera (6), 65 urte edo gehiago zituzten 8.116.347 pertsona zeuden, eta biztanleriaren % 17,3 okupatzen zuten, hori da eta, biztanleria oso zahartua zen. Hala ere, 2011tik 2021ra, 65 urtetik gorako jendea % 15,1 hazi da, eta gaur egun Espainiako biztanleriaren % 19,3 okupatzen du; guztira, 65 urtetik gorako 9 milioi pertsona daude.

Espero izatekoa da, mendearen erdialdean, adinekoak biztanleriaren % 32 baino gehiago izango direla, edo termino absolutuetan, 15 milioi pertsona inguru. Kalkulatzen da 2052. urtean, Espainian, 65 urte edo gehiagoko 15 milioi pertsona baino gehiago egongo direla, hau da, biztanleriaren % 37,2.



Hemen ikusten dugunez, 65 urtetik gorako biztanleriaren hazkundera agertzen da urteetan zehar